# DEBA HIRIBILDUA
# LA VILLA DE DEBA



1. Iturriko Portalea / Portal de la fuente
2. Pasaiaren Portalea / Portal del pasaje
3. Hareatzako Portalea / Portal del arenal
4. Erregearen Portalea / Portal del Rey
5. Ontziolako Portalea / Portal del astillero
6. Iturkale / Calle de la fuente
7. Erdikokale / Calle del medio
8. Okerkale / Calle torcida
9. Harategi kalea / Calle carnicería
10. Gurutzatua kalea / Calle cruzada
11. Plaza
12. Hareatza / Arenal
13. Pasaia / Pasaje
14. Labeak / Hornos
15. Ontziolak / Astilleros
16. Herriko iturria / Fuente pública

Deba hiribilduaren jatorria Montreal de Itziar izeneko hiribildu zaharrean dago. Hiribildu hura barrualdean zegoen, lau kilometro eskasera. Gaztelako Santxo IV.ak eman zien Itziarko bizilagunei, 1294an, sorrerako hiri gutuna; handik urte gutxi batzuetara, ordea, bizilagunek erregeari adierazi zien itsasertzetik hurbilago egon beharra zeukatela, arrantzan egiteko baleak ehizatzeko eta itsasoko baliabideak ustiatzeko.

Hala, itziartarrak gaur egungo Debako gunera jaitsi ziren, eta hiri gutuna Gaztelako Alfontso XI.a erregeak eman zion, 1343an, Montreal de Deba izenarekin.

## Hiribildu zaharra

Deba ibaiaren estuarioko garai bateko dunen eremuan kokatua, hiribildu berria hesi edo harresi batez inguratu zuten. Harresiak bost ate zituen.

Ate haietako bat gauden leku honetatik oso hurbil zegoen eta “Iturriko portalea” esaten zitzaion, hura zelako berezko sarrera hasierako herriko iturrira joateko. Ate hura ondoko Itziar herrira joaten zen bidera irteten zen. Ondoren, XVI. mendean, gaur ikus dezakegun Santa Kruz baseliza edo santutxoa eraiki zuten.

Bigarren atea aipatutako iturriko atearen pare-parean zegoen eta “Pasaiaren portalea” esaten zitzaion, portura eramaten zuelako, hain zuzen ere beste aldeko ibaiertzera (Urasandi) “pasatzeko” ontzirateko gunera. Kontuan izan behar da itsas-adarraren gaineko zubia XIX. mendekoa dela.

Hirugarren ateari “Hareatzako portalea” esaten zitzaion, hareatza zabalera (gaur egungo Calbeton zumardira) bertatik iristen zelako. Hasieran, han biltzen zen kontzejua, herriko asuntoez hitz egiteko. Gerora, ateari “bastioia” ere esaten zitzaion.

Hiribilduaren beste aldean, hareatzako portalearen aurrean, “Erregearen portalea” edo atea zegoen, errege bidea handik sartzen zelako, bai Itziartik zetorrena, San Josepetik barrena, bai Mendarotik zetorrena, Osio auzotik barrena.

Bosgarren ateari “Ontziolako portalea” esaten zion jendeak, bertatik hiribilduko ontziolak zeudeneko ibaiertzera joaten zelako. Portalearen ondoan, ehizatutako baleen gantzak urtzeko labeak zeuden, “Labatai” (labe-ate, labearen portalea) izeneko eremua.



1343ko hiri gutuna - Carta puebla de 1343

## Kaleak

Hasierako hiriaren esparruan, hiru kale nagusi zeuden, parroki elizaren aurrean zegoen plazatik ateratzen zirenak. Lehenengo kalea, Iturkale, zuzen joaten zen hegoaldeko harresira arte eta “Iturriko portalearen” aurrealdetik pasatzen zen.



Udaletxea / Ayuntamiento

Bigarren kalea, Erdikokale (gaur egun, Lersundi kalea), lehenengoarekiko paraleloan pasatzen zen eta Hareatzako eta Erregearen portaleak lotzen zituen.

Hirugarren kalea kurbatsua zen, eta horregatik esaten zitzaion “Okerkale” (gaur egun, Ostolaza kalea). Kalearen luzapenari “Harategi kalea” esaten zioten, han baitzegoen herriko hiltegia. Kalea “Ontziolako portalean” amaitzen zen.

Hiru kale nagusiak beste kale batek gurutzatzen zituen, hain zuzen ere Iturriko portalean hasi eta, Pasaiaren portaletik barrena, portura zeraman portalean (Portu kalean) amaitzen zenak.

Kale horiez guztiez gain, kale kantoi edo kale estu batzuk zeuden, Iturkale eta Harategi kalea Erdikokalearekin lotzen zituztenak.

## Udaletxea

Proiektua Ignacio de Iberok egin zuen, 1.747an. Fatxada harlanduzkoa da eta, estilo aldetik, barrokoa, oso apaindura gutxikoa eta herrerianoa. Hareharrizko hiru armarri ditu: errege koroarena, Gipuzkoakoa eta Debakoa. Elementu arkitektonikoak erregulartasunez antolatuta daude: behe solairuan, portiko arkuduna; lehen solairuan, balkoi jarraitua; eta bigarrenean, bi balkoi. Azpimarragarria da balkoi jarraituaren burdin sarearen abanikoan dagoen motibo apaingarria.

Arkupean, hareharrizko bi armarri daude, antzinako Oliden eta Irarrazabal familienak.

La villa de Deba tiene sus orígenes en la primitiva villa de Montreal de Itziar, situada en el interior, a escasos cuatro kilómetros. Fue Sancho IV de Castilla quien en 1294 concedía a los vecinos de Itziar su carta puebla fundacional, pero a los pocos años de aquella fundación, los vecinos planteaban a la corona la necesidad de acercarse más a la costa para poder pescar, cazar ballenas y explotar los recursos marítimos.

De ese modo, las gentes de Itziar descendieron al actual asentamiento de Deba que recibió de Alfonso XI de Castilla su carta puebla en 1343, con el nombre de Montreal de Deba.

## La antigua villa

Asentada sobre un antiguo campo de dunas del estuario del río Deba, la nueva villa fue rodeada por una cerca o muralla que contaba con cinco puertas.

Muy cerca de donde nos encontramos se encontraba una de ellas, conocida como “Portal de la Fuente” por ser el acceso natural a la primitiva fuente pública. Esta puerta daba salida al camino que se dirigía a la cercana población de Itziar. Fuera de la cerca, posteriormente, en el siglo XV se construyó la ermita o humilladero que hoy podemos ver, dedicado a la Santa Cruz.

La segunda puerta estaba situada prácticamente frente a la ya mencionada y era conocida como “Portal del Pasaje”, por dar salida al puerto, concretamente al lugar donde se encontraba el punto de embarque para “pasar” a la ribera opuesta (Urasandi). Hay que tener en cuenta que el puente sobre la ría fue construído en 1866.

La tercera de las puertas era conocida como “Portal del Arenal”, por ser el acceso al amplio arenal (actual alameda de Calbetón), donde primitivamente se reunía el concejo para tratar los asuntos municipales. Posteriormente, esta puerta fue también conocida como del “Bastión”.

Al otro lado de la villa, frente al portal del Arenal, se encontraba la puerta o “Portal del Rey”, por ser la entrada a la población del camino real, tanto el que llegaba de Itziar a través de San Josepe como el que llegaba de Elgoibar por el barrio de Osio.

La quinta puerta era popularmente conocida como “Portal del Astillero”, por dar acceso a la zona ribereña, donde se encontraban los astilleros de la villa. Junto a este portal se encontraban los hornos para la fundición de la grasa de las ballenas cazadas, una zona conocida como “Labatai” (labe-atea), portal del horno.



Hiribilduko ontziolak - Astilleros de la villa

## Las calles

El recinto de la puebla primitiva tenia tres calles principales que partían de la plaza situada frente a la iglesia parroquial. La primera de ellas, Iturkale, discurría en línea recta hasta la muralla Sur y pasaba ante el “Portal de la Fuente”.

La segunda calle, conocida como calle del Medio o Erdikokale, actualmente Lersundi, discurría paralela a la anterior, uniendo las puertas del Arenal y la del Rey. El trazado de la tercera calle era curvo, lo que motivó su denominación, “Okerkale” (calle torcida), hoy conocida como Ostolaza. La prolongación de ésta era conocida con el nombre de “Carnicería”, por encontrarse en ella el matadero de la villa. Esta terminaba en el “Portal del Astillero”.

Las tres calles principales eran atravesadas por otra que comenzaba en el Portal de la Fuente y finalizaba en el portal por el que se accedía al puerto (Portu Kalea) a través del Portal del Pasaje.

Además de todas estas calles, existían unos cantones o estrechas callejuelas que unían las calles de Iturkale y de la Carnicería con la calle del medio, Erdikokale.

## El Ayuntamiento

Fue proyectado por Ignacio de Ibero en 1.747. La fachada de sillería caliza local es de estilo barroco, muy austera, del gusto herreriano. Tiene tres escudos de piedra arenisca, el de la Corona Real, el de Gipuzkoa y el de Deba. Sus elementos arquitectónicos se ordenan con regularidad: pórtico de arcos en planta baja, balcón corrido en la primera y sendos balcones en la segunda. Destaca el motivo decorativo del abanico de la rejería del balcón corrido.

La zona porticada guarda dos escudos de arenisca pertenecientes a las antiguas casas de Oliden e Irarrazabal.

*Informazio gehiago*
*Para más información:*

Geoparkea Costa Vasca - Euskal Kostaldea · European Geoparks · Global Geoparks Network · Debako Udala · Turismo Gipuzkoa · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad · Euskadi Basque Country

